

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Euskara ikasteko 2026ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2026ko apirilaren 16ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 903876.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 173.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/903876>).

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honetako diru-laguntzak ondoko baldintzak betetzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonentzat dira: Zuiako udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, eta beretan erroldatuta egotea ikastaroa amaitu arte.

Bigarrena. Xedea

Zuiako Udalak bertan erroldatutako jendeari 2026an eman beharreko diru-laguntzak arautzea du helburu deialdi honek; diru-laguntza horiek jarraian adierazten den edozein ikasketa egiteko dira.

Euskaltegietan edo HABEk homologatueta zentroetan egindako ikastaroak (2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era arte).

Ikastaroak barnetegi homologatueta, 2026an.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2026ko maiatzaren 15ean onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 335.480.000 partidaren kredituari, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin egotziko zaizkio.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastaroaren matrikularen zenbatekoaren ehuneko 100 izango da; barneratuen kasuan, mantenu- eta egonaldi-gastuak dirulaguntzatik kanpo geratuko dira.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastaroa amaitzen denetik hilabeteko epealdia egongo da eskaerak aurkezteko, udalak emandako ereduaren arabera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2026ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA